


EDITORIALA



Irudia ~ Parisen Palais Garnier Operako espazio publikoetan zeharkako ebaketa erakusten duen litografia, Karl Fichot (1875).
Iturria ~ Wikimedia Commons

Espazio publikoa ez da, asmakizun bezala, beti gure inguruan izan, nolabait modernitateak ezarritako etiketa gisa uler daiteke «publiko» hitz hori. Alta, gizakien kokalekuak leku finkoetan ezarri ziren momentutik espazio publiko bati buruz hitz egin dezakegu.

Espazio publiko hori ondare publiko bezala ulertzerakoan hasten da publikoaren eta pribatuaren arteko gatazka; gaur egun, espazio publikoetan gune pribatizatuak topa ditzakegun bezala, gune pribatuetan espazio publiko edo aske baten sinbologiak errepikatzen dira, «hiritarra» zena «erabiltzaile» bilakatzen da. Merkantilizazio ezkutu horren adierazle gorena merkataritza-guneen inguruko proiektuak izan badira ere, gure hirietan badira hamaika adibide.

Bestalde, publikoaren eta pribatuaren arteko oreka ez da bakarrik hirigintza-eskala batera mugatzen, arkitekturaren eskalan ere badirelako hainbat adibide non kanpoa eta barrua nahastu egiten diren, oihalhormen erabileratik hasita murrueen dekonstrukzio-prozesuetara igaroz.